

Oposición cuerpos de secundaria, escuelas oficiales de idiomas y especialistas en sectores singulares de la formación profesional 2025 Bigarren hezkuntzako, hizkuntza-eskola ofizialetako eta lanbide-heziketako sektore berezietako	Prueba 2B, exposición de la unidad didáctica / ámbito de FP 2B proba, unitate didaktikoaren azalpena / LHko eremua
Resolución 249/2024, de 15 de octubre / 249/2024 Ebazpena, urriaren 15ekoa	

0598 - MECANIZADO Y MANTENIMIENTO DE MÁQUINAS / EUSKERA

0598 - MAKINEN MEKANIZAZIOA ETA MANTENTZE-LANAK / EUSKARA

CRITERIO DE VALORACIÓN / BALORAZIO IRIZPIDEAK	Puntuaciones / descuentos máximos Gehieneko puntuazioak / murrizketa
Alderdi orokorrak	2 ptos. / puntu
Unitate didaktikoa justifikatu da eta hari testuingurua eman zaio programazioaren edo espezialitatearen gai-zerrendaren barruan. Bat dator Nafarroako Foru Komunitateko curriculumarekin eta indarreko gainerako arauekin. 1.- Nahitaezkoa da moduluaren edukiak garatzeko. 2.- Gaitasunak garatzen laguntzen du. 3.- Profil profesionala jasotzen du.	1 pto. / puntu
Unitate didaktikoa ongi egituratuta dago eta haren elementuak koherenteak dira beren artean. 1.- Elementu guztiak jasotzen ditu: justifikazioa, testuingurua, ikaskuntzaren emaitzak, helburuak, edukiak (kontzeptu mapa, sekuentziatzea, zeharkakotasuna, aniztasunerako arreta), metodologia, jarduerak (hedatzea, indartzea, errehabilitazioa), ebaluazioa (irizpideak, tresnak, kalifikazioa, errehabilitazioa), bibliografia, materialak, tresnak eta tenporalizazioa.	1 pto. / puntu
Helburuak, edukiak eta metodologia	2 ptos. / puntu
Helburuak, edukiak eta ikaskuntzaren emaitzak ongi planteaturik daude eta koherenteak dira beren artean. Horiek guztiak gaitasun orokorarekin eta gaitasun profesional, pertsonal eta sozialekin, bai eta gaitasun atalekin ere, daukaten harremana zehazten da, eta, Lanbide Heziketako oinarritzko mailako heziketa zikloen kasuan, irteerako profilarekin.	1 pto. / puntu
Proposatutako metodologia bat dator hezkuntza mailarekin	1 pto. / puntu
Jarduerak	2 ptos. / puntu
Jarduerak motibagarriak eta koherenteak dira eta ikaskuntzaren emaitzak / bukaerako gaitasunak lortzearekin lotzen dira, hezkuntza mailarekin bat datozen metodologiak aplikatuta. 1.- Curriculum aplikagarrian ikaskuntzaren emaitzak kontuan hartzea. 2.- Helburuak ikasgelako mailari, taldeari eta hezkuntza-testuinguruari egokitzea. 3.- Helburuak sortzea, neurgarriak.	0,5 ptos. / puntu
Guneak eta denborak antolatzen dira honekin batera material eta baliabide didaktikoak erakargarriak, egokiak eta askotarikoak erabiliz	0,5 ptos. / puntu
Material eta baliabide didaktikoak erakargarriak, egokiak eta askotarikoak dira.	0,5 ptos. / puntu
Jarduerak ikaskuntza-helburuetara egokitzen dira.	0,5 ptos. / puntu

Ebaluazioa	2 ptos. / puntu
Ebaluazio tresnak eta bidezko kalifikazio irizpideak zehaztu dira, Nafarroan, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko datan, indarrean den araudiarekin bat. 1.- Askotarikoak eta malguak: ikasleen aniztasunera eta ikasleen kompetentzia/gaitasun profesionalak lortzeko ekarpenera egokituak. 2.- Irizpideak eta adierazleak: ebaluazio jarraiturako egokiak eta objektiboki neurgarriak. 3.- Ikasleen kompetentzia/gaitasun profesionalak lortzeko eskumena.	1 pto. / puntu
Unitate didaktikoetan jorratzen diren ikaskuntza emaitzekin duen lotura zehaztu da, eta, Lanbide Heziketako oinarrizko mailako zikloen kasuan, ikasleen irteerako profilarri egindako ekarpena.	1 pto. / puntu
Komunikazio gaitasuna	2 ptos. / puntu
Ideiak modu egituratuan eta ulergarrian adierazi dira, komunikazio-testuingurura egokitutako formalitate-mailarekin hitz egiteko gaitasunarekin	1,5 ptos. / puntu
Ebaluazio epaimahaiaren galderei emandako erantzunak egokiak eta koherenteak izan dira	0,5 ptos. / puntu